

GIPUZKOAKO ADINEKOEN ALDEKO MANIFESTUA 2013



Gipuzkoako Adineko
Pertsonen Kontseilua

 *Gipuzkoa*
BERRIA

Dokumentu hau Adineko Pertsonen Kontseiluak onartu zuen 2013ko apirilaren 24ko bilkuran.

Argazkiak: Javi Colmenero y Nagusilan

Maketazioa: Angel Rico

Aldizkari hau Gipuzkoako Foru Aldundiko moldiztegia inprimatu da

AURKIBIDEA

SARRERA	4
OINARRIAK	7
ADINEKOEN ESKUBIDEAK	
ETA BETEBEHARRAK	13
Duintasuna	14
Independentzia	16
Garapen pertsonala eta soziala	18
Parte hartzea	20
Arreta ematea eta zaintzea	22
GOMENDIOAK	25
Botere publikoentzako	26
Adinekoen elkarteentzako	29
Komunikabideentzako	30
Gizarte Zerbitzuentzako	31



SARRERA

Adineko pertsonak dira, gure gizartean, ekarpen handiena egin dutenak gaur egun ezagutzen dugun estatu soziala eraikitzeko. Aldi berean, adinekoak dira errazen diskriminatzen direnak, gero eta lehiakorragoa eta gizakien arteko diferentziak eta dibertsitatea begi txarrez ikusten dituen mundu honetan.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Adineko Pertsonen Kontseiluak 2001ean argitaratu zuen "Bizitzen lagundu. Zaharren aldeko agiria" manifestuan, hainbat printzipio jasotzen ziren gizarteak adinekoei buruz duen jarrera, kohesioa eta solidaritatea hobetzeko. Manifestu horren oinarrian zeuden, ezin bestela izan, Nazio Batuek adineko pertsonen alde "biziari



gehitutako urteei bizia gehitzeko” aldarrikatutako printzi-pioak: duintasuna, independentzia eta arreta izateko, parte hartzeko eta pertsonalki garatzeko eskubidea.

Ordutik, asko eboluzionatu da gizartea. Asko hobetu dira adinekoekiko onarpen eta aintzatespen soziala, kohesioa eta solidaritatea. Legez aitortu zaie, lehenengo aldiz, ezinduei edo mendekotasuna duten pertsonen, bizitzaren etapa horretan duintasunez bizi izaten lagunduko dieten zerbitzuak eta prestazioak hartzeko eskubide subjektiboa. Aurrerapen handia gizarte arloan, zalantzarik gabe.

Hala ere, aurrerapenekin batera, atzerapenak eta mehatxuak ere izan dira, eta gaur egun bizi dugun egoera sozio-ekonomikoak bete betean harrapatu ditu pertsonen eskubideak. Eta adinekoen eskubideak lermatzen ari dira, haiek izan arren –beren ahaleginarekin– orain arriskuan dagoen ongizate estatua eraiki zutenak.

Hori dena kontuan izanda, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuko Adineko Pertsonen Kontseiluan uste dugu iritsi dela garaia, alde batetik, Manifestua berrikusteko eta errealitate berriari eta ikaskuntza berriei egokitze eta, bestetik, etorkizunean ikusten ditugun hodei beltzen mehatxuaren aurrean jarrera hartzeko.

Horregatik erabaki dugu “2013ko Adineko pertsonen aldeko manifestu” hau berritzea, pertsona gisa duten balio intrintsekoa aitortzeko, gizarteari iraganean egin dioten eta egiten dioten ekarpena baloratzeko, gaur egun belaunaldi guztiok gozatzen dugun ongizate estatuari egin dioten kontribuzioa goraipatzeko, eta elkarrekin aurrera egiteko gizarte justuagoa, zuzenagoa eta pertsona guztien eskubideak errespetatuko dituen eraikitze bidean. Eta, era berean, publikoki gogoratzeko eta gogorarazteko, gaur egun eskubideak

mehatxupearan ikusten dituzten adineko horiek izan direla, hain zuzen ere, beren ahalegin eta lan eskergarekin, gaur defendatu beharko litzuzkeen sistema hau eraiki zutenak: bidegabekeria bikoitza da egin duten ahalegin guztiaren emaitza ebastea.

Manifestu hau ideia nagusi batzuen inguruan egituratu da. Ideia horien funtsa honela laburbil daiteke: adineko pertsona eskubide osoko herritartzat hartzea, bere bizitzaren benetako protagonistatzat, eta kontuan hartzea bereziki izaeraz desberdinak direlako atzera gera litezkeen pertsonak: emakumeak, immigranteak, desgaitasun fisiko edo mentala dutenak, hau da, diskriminazioaren barruan diskriminazio are handiagoa jasan dezaketenak.

Ideia nagusi horiek oinarri hartuta, eskubide eta betebeharrak eta gomendio sail bat artikulatu da. Garrantzitsua iruditu zaigu eskubideak osatzea betebeharren kontrapartidarekin: ez dugu ahaztu behar, arreta eta duintasuna izateko eskubideak, autoerrealizatzekoak, eta eskubide sozial, kultural, ekonomiko, zibil eta politikoek berekin daramatzatela hainbat betebeharrak ere: gizartean parte hartzea, bizimodu aktiboa izatea, solidaritatea, norberaren burua zaintzea, eta besteenganako errespetua eta diferentzia onartzea. Azkenik, gomendio orokor batzuk egiten zaizkie botere publikoei, komunikabideei, elkartei eta gizarte zerbitzuei, gure harri koskorra ekarri nahian, gure esperientzian oinarritutako hobekuntza batzuk proposatuz.

Manifestu hau talde lanean egindako hausnarketaren emaitza da: adinekoen hainbat elkartetako pertsonak eta gizarte zerbitzuetako profesionalak hartu dute parte, bakoitzaren ingurunean jasotako sentipenak azalduz. Lehenengo zirriborro bat egin zen, eta zeresana izan zezaketen pertsona kualifikatuei erakutsi zitzaizkien, haien ikuspegi kritikoarekin eta iritziekin testua aberasteko eta hobetzeko. Material horrekin guztiarekin Manifestua osatu ondoren, Adineko Pertsonen Kontseiluak onartu zuen 2013ko apirilaren 24ko bilkuran, eta zabalik dago partikularrek, elkarteek eta erakundeek egin nahi dituzten atxikimenduak jasotzeko.

Espero dugu Manifestu honek beteko duela bere benetako helburua: gogoetagai izatea, gizarteari ideiak ematea eta herritar guztioi bizitzaren azken urteetan zahartzaro eroso eta duina izateko aukera emango digun aldaketa bideratzea.

OINARRIAK

Adineko pertsona da bere biziaren
benetako protagonista.

Adinekoek herritar izaten segitzen dute eta
bizi guztian herritar izaten segitzeko
eskubidea dute.

Adinekoak ekitatez eta justiziaz tratatu
behar dira.

Adinekoen artean, gehienak emakumeak dira
eta haien perspektiba nahitaez hartu behar da
kontuan.

Adinekoak helburuko hartzaile gisa sartu
behar dira gizarte osoarentzat bideratzen
diren zeharkako politiketan.

Adinekoenganako kontsiderazioa eta laguntza
behar duten haiei arreta ematea, belaunaldi
arteko solidaritatea eta eman duten guztiaren
ordain zuzena baino ez da.

Zaila izango da adinekoen garapen pertsonala
eta soziala gauzatzea, estatu sozial bat
mantentzen ez bada.

Adineko pertsona da bere biziaren benetako protagonista.

Berak erabaki behar du nolako bizimodua egin nahi duen, nahi duenaren eta ahal duenaren arteko oreka bilatuz.

Bera arduratu behar da nahi duen bizimodu hori bizi ahal izateko baldintzak aldeztu aurretik prestatzeaz, izan dezakeen marjinaren barruan.

Berak hartzen ditu erabakiak une oro, lehengo esperientzietan oinarrituta, eta bere gain hartzen ditu erabaki horien ondorioak.

Adinekoek herritar izaten segitzen dute eta bizi guztian herritar izaten segitzeko eskubidea dute.

Herritar gisa dituzten eskubideak eta betebeharrak ezagutzeko aukera izan behar dute.

Gizarteari buruzko eskubideak eta betebeharrak egikaritzeko, eta komunitateko bizitzan aktiboki parte hartzeko aukera izan behar dute.

Horretarako, gizarteak bideratu beharko ditu eskubide zibil, politiko, kultural, espiritual, ekonomiko eta sozialak egikaritzen segitu ahal izateko behar dituzten bitartekoak.

Adinekoak ekitatez eta justiziaz tratatu behar dira.

Gizarteko baliabide eta zerbitzuetarako irispidea izan behar dute, inolako diskriminaziorik gabe, adina, generoa, diru-sarrerak, bizilekua, osasun egoera, kultura edo jatorrizko nazionalitatea edozein izanda ere.

Bizi diren ingurunea hirikoa edo landakoa den eta erreferentziako kultura zein duten kontuan hartuta tratatu behar dira.

Komunikabide sozial guztietarako sarbidea eta irispidea izan behar dute, errealitateari buruz duten ikuspegia eta izandako esperientziak kontatzeko, eta hurrengo belaunaldiari transmititzeko.

Adinekoen artean, gehienak emakumeak dira eta haien perspektiba nahitaez hartu behar da kontuan.

Emakumeak eta gizonezkoak ez dira modu berean zahartzen, errealitate pertsonal eta familiar desberdinak izan ohi dituzte, eta horregatik beharrezkoa da elementu horiek kontuan hartzea politikak eta ekintza programak diseinatzeko eta ebaluatzeko garaian.

Emakumeen parte hartze soziala txikiagoa da kopuruz duten garrantziari legokiokeena baino. Garrantzi handikoa da parte hartze hori indartzeko baldintzak jartzea, eta parte hartze horren bidez helarazten dituzten premiei eta eskariei erantzutea.

Desoreka nabarmena dago gizonezkoek eta emakumeek zaintza lanetan duten inplikazioan, eta emakumeak bidegabeki baldintzatuta daude alde horretatik. Bi generoen ardura partekatua bultzatu beharra dago zaintza lanei dagokienez, denek aukera berak izan ditzaten garapen pertsonal eta sozialerako.

Adinekoak helburuko hartzaile gisa sartu behar dira gizarte osoarentzat bideratzen diren zeharkako politiketan.

Adinekoen premia eta zailtasunetako asko beste gizarte talde batzuenen berdinak izan arren, gaindiezinak izaten dira adinekoentzat (mugikortasun geografikoa, ekonomikoki mantentzea, kultura jardueretarako irispidea, etab.). Horregatik, adinekoen premiak gizarte osoaren onurarako zeharkako politiken barruan tratatu behar ditu administrazioak.

Adinekoentzako politika espezifikoak, zeharkako politiken bidez iritsi ezin diren arloetan bakarrik egin beharko lirateke.

Adinekoek eskubidea dute behar dituzten zerbitzuak eta aukerak ingurune hurbilean izateko, premiarik gabeko zentralizaziorik gabe, eta irispide birtuala bultzatuz.

Komunitate mailako zentroak eta zerbitzuak sustatu behar dira, belaunaldi eta gizarte talde desberdinen arteko elkartrukea bideratu eta erraztuko dutenak.

Adinekoenganako kontsiderazioa eta laguntza behar duten haiei arreta ematea, belaunaldi arteko solidaritatea eta eman duten guztiaren ordain zuzena baino ez da.

Arrakasta da gizarte bateko pertsonen urte gehiago hartzea, eta hobeto, inola ere ezin da esan arazoa edo porrota denik. Gizarte batean adinekoen eta gazteen arteko proportzioaren desoreka egotea (biztanleria zahartzea) erronka bat da eta maila batean baino gehiagotan konbinatutako erantzunak eman behar zaizkio.

Egiaztatu dugu gizarte kohesionatu eta arduratsu bat eraikitzeko oinarria, gizarte horrek bizitzako etapa bakoitzean zehar zailtasunak dituztenei sostengua emateko duen gaitasuna dela.

Adinekoek ekarpen handia egiten dute, familian nahiz komunitatean, gizarte solidario bati eusteko, beren denbora eta baliabide ekonomikoak eskainiz horien premia dutenei.

Bidegabea eta arbuigarria da, adineko gehienak independenteak eta laguntza emaileak direla ahaztuta, kolektibo horren baitan arreta behar dutenak eta gizartearentzako kostua ekartzen dutenak bakarrik ikusten dituen diskurtso oro.

Zaila izango da adinekoen garapen pertsonala eta soziala gauzatzea, estatu sozial bat mantentzen ez bada.

Gaur egun dugun babes soziala, aurreko belaunaldien ahaleginaren, borrokaren eta sakrifizioaren emaitza da. Adinekoek, belaunaldi horietakoak direnez, legitimotasun handiagoa dute hainbeste kostata lortutako babes maila horiei eutsi egin behar zaiela errebindikatzeko.

Estatu soziala beti izan da, eta da, eskubide sozialak defendatu eta bermatu izan dituen kapital metaketa eta irabazia gidari dituen logikaren aurrean, pobrezia eta desberdintasun soziala gero eta handiagoak izateak inolako kezkarik sortzen ez dion merkatu sistemaren aurrean.

Estatu sozialari dagokio, prestazio eta baliabide normalizatuen bitartez, pertsonen bizimodu duina izateko behar dituzten bitartekoak izango dituztela bermatzea.

Gastu soziala gizarteko kideen artean errenta birbanatzeko eta kohesioa sendotzeko bermea da, eta gainera enpleguan eta zerga bilketan eragina duen jarduera ekonomikoa sortzen du.

ADINEKOEN **ESKUBIDEAK** ETA **BETEBEHARRAK**

Adinekoek kalitatezko bizimodua izan dezaten bete beharreko oinarrizko printzipioak Nazio Batuen Batzar Nagusiak definitu zituen 1991ko abenduaren 16an emandako 46/91 ebazpenean, hauen bitartez:

- Independentzia
- Parte hartzea
- Laguntza (arreta ematea eta zaintzea)
- Norberaren nahia betetzea (garapen pertsonala)
- Duintasuna

Printzipio horietatik abiatuta, adinekoen zahartze aktiboa sustatzeko, hiru ardatz hauen inguruan jardun behar da: parte hartzea, osasuna eta segurtasuna.

ESKUBIDEAK

- Pertsona bakar eta berezi gisa hartua izatea, modu pertsonalizatuan tratatua, ez kategoriatan edo talde bateko edozein kide bezala.
- Errespetuz, zuzentasunez eta adeitasunez tratatua izatea.
- Ingurukoek bere intimitate fisikoa eta emozionala errespetatzen dutela ikustea.
- Bere datu pertsonalen konfidentzialtasuna une oro zaintzen dela ikustea.
- Bizitza afektiboa eta sexuala garatzeko aukerak izatea.
- Gizartean duen papera aitortzen zaiola eta garatzeko bitartekoak ematen zaizkiola ikustea.
- Emakume edo gizonezko izaerari eta egoerei egokitutako arreta jasotzea.
- Beti pertsona heldu bezala tratatua izatea, baita ahalmen fisikoa edo ezagumena galdu badu ere, edo gaixotasun mentalen bat badu ere.
- Babesa behar izanez gero, ahal dela inguruneko neurriak aplikatu diezazkiotela; murrizketa fisikoak edo kimikoak mugatu eta kontrolatu ditzatela bere eskubideak bermatuko dituen protokoloen bitartez.
- Beti informatuta egotea, bere ulermenari egokitutako informazioa jasotzea.
- Erabakiak hartu ahal izatea, edo kontuan hartu izatea, berari dagozkion gaiak direnean (aurrez adierazitako borondatea).
- Bizitzaren amaieran artatua izatea eta konpainia izatea.

“Pertsonen balio intrintsekoa aitortzea, bakoitzaren indibidualtasuna errespetatuz”

BETEBEHARRAK

- Berarekin harremana duten pertsonak errespetatzea eta zuzentasunez tratatzea.
- Ahal duen neurrian, bere burua zaintzeko eta bizimodu duina egiteko ardura hartzea.
- Errespetu gutxiko traturik edo tratu apalesgarririk ez onartzea eta, halakorik gertatuz gero, profesionalen edo justiziaren babesa eskatzea.
- Aldez aurretik definitzea, erabakimena mugatuta edo erabat galduta geratuko balitz, zein diren duintasunari dagokionez errespetatzea nahi dituen gaiak.



Independentzia

ESKUBIDEAK

- Pertsona gisa bizimodu duina izateko behar diren gutxieneko baliabideak izatea: diru sarrerak, etxebizitza, arreta soziala, osasun arreta eta ingurunean integratuta garatzeko laguntzak.
- Ingurune irisgarri batean kokatuta egotea, bere etxean eta bere komunitatean, auzoan edo herrian ahalik eta denbora gehienez jarraitu ahal izateko behar dituen zerbitzu guztiekin.
- Bere baliabide ekonomikoak eta ondarea baliatu ahal izatea nahi duen eran.
- Erabakiak hartu ahal izateko behar duen informazioa izatea.
- Egin nahi duen bizimoduari buruz hartzen dituen erabaki pertsonaletan errespetatua izatea, hirugarren pertsona batzuen eskubideei kalterik egiten ez dien bitartean.
- Garaiz eskuratu ahal izatea mendeko izatera ez iristeko eta osasuna zaintzeko behar diren prebentziozko zerbitzu eta prestazio sozialak eta sozio-sanitarioak.
- Autonomiarako gaitasuna mantentzeko zerbitzuak eta aukerak izatea, eta baita galdutako gaitasunak ahal den neurrian berreskuratzekoak ere.
- Berreskuratu ezin diren autonomia galerak konpentsatzeko laguntza teknikoak, arreta pertsonala eta bestelakoak jasotzea.

“Pertsonak nola bizi, pentsatu, jokatu eta erlazionatu nahi duen erabakitzen jarraitzeko aukera”

BETEBEHARRAK

- Bere bizimoduari buruz dituen lehentasunak eta nahiak argi adieraztea.
- Bizimodu independentea mantentzeko, baliabide ekonomiko zein material propioa, arduraz zaintzea eta administratzea.
- Behar bezala informatzea osasuna, baliabide ekonomiko, familia harreman eta antzekoei buruzko erabaki garrantzitsuak hartu aurretik.
- Etorkizuna koherentziaz aurreikusi eta planifikatzea bere lehentasunen eta baloreen arabera.
- Osasuna zaintzea eta aktibo mantentzea maila guztietan, ahal den neurrian, mendeko izatera iristea eragozteko.
- Ez etsitzea eta mendekotasunean ez erortzea, galdutako gaitasunen bat berreskuratzeko aukerarik badago edo laguntza teknikoarekin edo arreta pertsonalarekin bere kabuz baliatzeko aukerarik badago.
- Berari dagozkion erabakietan protagonista izaten jarraitzea, beste pertsona batzuen laguntza behar izan arren erabaki horiek gauzatzeko, beste pertsona horien bizitza baldintzatzen ez badu haien borondatearen kontra.

Garapen pertsonal eta soziala

ESKUBIDEAK

- Jarduera gogobetegarri eta aberasgarrietan parte hartzea (jarduera fisiko, intelektual, harremanetako, sozialetan), balore eta lehentasun pertsonalen arabera.
- Trabarik ez izatea beretzat jartzen diren baliabide guztiak — sozialak, informaziokoak, hezkuntzakoak, kulturalak, espiritualak nahiz aisiakoak— eskuratzeko.
- Bere hurbileko ingurunean, pertsonalki nahiz birtualki eskuratzeko moduko baliabideak izatea.
- Zein eskubide dituen eta eskubide horiek nola balia ditzakeen jakiteko informazioa jasotzea.
- Bizi guztian zehar prestatzen eta ikasten jarraitzeko aukera izatea.
- Trebatu ahal izatea, bereziki, teknologia berriak erabiltzen ikastea, eta bere gaitasunari egokitutako tresna teknologikoak eskura izatea, hutsarte digitala eragozteko.
- Pertsonarengan zentratutako programak eta zerbitzuak izatea, pertsonaren lehentasunak eta estilo desberdinetako bizimoduak izateko aukera kontuan izango dituztenak eta erabakiak modu autonomoan hartzen estimulatu eta laguntzen dituztenak

“Nortasuna, gaitasunak eta potentziala osoki garatzen segitzea. Pertsonaren adierazpiderako premia guztiei erantzutea. Hainbat motatako jardueretan parte hartu ahal izatea”


BETEBEHARRAK

- Jarduera atseginak egiteko eta bizitza pertsonal eta sozialaz gozatzeko aukerak aprobetxatzea.
- Dituen ezagutzak, esperientziak eta iritziak ingurukoei eta gizarte osoari transmititzea.
- Zahartze aktiboa praktikatzea.
- Ikasteko jardueretan inplikatzeko, bakoitzaren gustuen eta ahalmenaren arabera.
- Lehentasunak eta nahiak zuzenean eta argi adieraztea, horretarako aukera egokitzen denean, eta bidezkoa den neurrian errespetatuak izan daitezela eskatzea.



ESKUBIDEAK

- Eskubide zibil, politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalak egikaritzea.
- Mugimenduetan eta elkarteetan parte hartzea.
- Adinekoentzako politikak erabakitzen dituzten edo adinekoen interesak definitzen dituzten organismo eta erakundeetan ordezkaritza izatea eta aktiboki parte hartzea.
- Gizarteko komunikazio kanaletarako irispidea izatea, beren iritzia transmititzeko, duten esperientzia eta ezagutza gizartearen zerbitzura jartzeko eta historia gazteagoekin partekatze.
- Komunitatearen onerako lan egiteko aukerak izatea.
- Gizarteko beste sektore batzuekiko interrelazioa eta integrazioa bideratzeko politiken barruan kontuan hartuak izatea.



“Gizartean integratuta eta aktiboki parte hartzen jarraitzea, batez ere politika publikoen formulazioan eta aplikazioan, belaunaldi gazteagoetakoekin batera elkarlanean”

BETEBEHARRAK

- Eskubide zibil, politiko, ekonomiko, sozial eta kulturei buruzko informazioa jasotzea eta eskubide horiek egikaritzea, egoki denean.
- Familian eta lagunartean aktiboki parte hartzea, eta baita inguruko komunitate bizitzan ere.
- Dituzten ezagutzak eta esperientziak eskaintzea, beren ingurunea eta oro har gizarte osoa hobetzeko, generazio berriei baliagarri izan dakiekeena transmitituz.
- Gizartearekin lankidetzan aritzeko eta belaunaldien arteko elkartrukean jarduteko prest egotea.
- Pasibo izateari utzi, eta eskatzera, proposatzera eta ekitera pasatzea.



Arreta ematea eta zaintzea

ESKUBIDEAK

- Behar duen laguntza jasotzea zaintzaile informalen eta zerbitzu publiko sozialen aldetik, bere ongizate biopsikosozial pertsonalizatua bermatzeko eta osasun orokor eta autonomia ahalik eta handiena izaten laguntzeko.
- Bere ohiko bizilekuan jarraitzea, horrela nahi duenean eta dituen premiei egoki erantzuteko behar diren baliabide formal nahiz informalak baldin badaude.
- Ingurune sozio-familiarreko pertsonen sostengu emozional eta informala izatea, lehendik pertsona horiekin zeukan harremanaren arabera. Laguntza emateko ardura partekatua izango da, emakumeei gehiago exijitu gabe.
- Eguneroko bizitzarekin zerikusia duten erabaki pertsonalak hartzeko aukerak, estimuluak eta laguntza izatea, bere gaitasunaren neurrikoa.
- Agintari publikoek baimendu, kontrolatu eta ebaluatutako zerbitzuak jasotzea. Zerbitzu horiek bermatu beharko dute: laguntza zerbitzuaren kalitatea, segurtasuna, pertsonalaren prestakuntza eta inplikazioa eta artatutako pertsonen eta haien familien parte hartzea.
- Ongizateari eta interesei dagozkien gaitan bere burua defendatu ezin duenean, ingurune sozio-familiarrekoek edo lege ezarritako tutoreak defendatua izatea, aldeztu aurretik adierazitako borondatea errespetatuz betiere.
- Babes materiala eta legearena jasotzea ahalmen fisikoa eta/edo psikikoa galduz gero, edo hirugarrenek gehiegikeriaren bat egin, tratatu txarra eman edo abandonatuz gero.

“Era guztietako arreta eta laguntzak jasotzea: osasuna zaintzekoak, arreta fisiko, psikologiko, sozial, espiritual, emozionalak; pertsonalki garatzen eta bizimodu duina izaten segitzeko behar diren guztiak”

BETEBEHARRAK

- Zaintze lanetan laguntzea, batez ere osasun orokorra zaintzeari dagokionez, profesionalen gomendioei jarraituz eta behar diren prebentzio neurriak betez.
- Laguntza ematen dioten pertsoneri argi adieraztea zeintzuk diren bere lehentasunak eta nahiak, eta ezarritakoaren eta posible denaren barruan errespetu ditzatela eskatzea.
- Zerbitzu eskasik edo errespetu gutxiko traturik ez onartzea eta, horrelakorik gertatzen denean, administrazioari edo ardura duen erakundeari jakitera ematea.
- Ahal den neurrian, harreman positiboak ezartzea ingurune sozio-familiarrekin eta harreman horiek zaintzea.
- Arreta ematen dioten profesionalekin harreman positiboak mantentzea.
- Aldez aurretik borondate adierazpena eginda uztea, egunen batean bere kabuz erabaki ezinda geratuko balitz, zaintzaile informalek eta profesionalek nola jokatu jakin dezaten.



GOMENDIOAK

Dokumentu honetan orain arte azaldutako oinarri, printzipio/dimentsio eta eskubide eta betebeharretatik abiatuta, behean sinatzen dutenek proposamen zehatzak egin nahi dizkiete gizarteko hainbat estamenturi.

Irizten dute gomendio horiek egitea beharrezkoa dela hemen eta orain, Manifestuaren edukia errealitate bihurtzeko eta errealitate horretan aurrera egiteko.

Oinarri hartuta adinekoak beren biziaren protagonistak direla, proposamenen zati bat beraiei zuzendua da; zehazki, adinekoen elkarteei zuzendua.

Ahalegina egin da une honetan garrantzi berezia duten gomendioei lehentasuna emateko, gomendio posible guztiak agortu beharrean.

BOTERE PUBLIKOENTZAKO GOMENDIOAK

- Ideia zabaltzea, biztanleriaren bizi-erataz luzeagoa eta adineko gehienak mendekotasunik gabe bizi izatea, arrakasta dela gizartearentzat, eta erronka; inola ere ez arazoa edo karga.
- Itun berri bat bultzatzea Ongizate Estatua defendatzeko, hori baita kohesioaren, belaunaldien arteko solidaritatearen eta jardura ekonomikoaren iturburua. Ongizate Estatua ondarea dela azpimarratu, aurreko belaunaldien ahaleginaren eta borrokaren emaitza, eta eutsi egin behar zaiola, eta hobetu.
- Estatu Sozialaren oinarritzako zerbitzuetan erantzukizun publikoa mantentzea, baliabideen kudeaketa egokiaren bitartez.
- Gizarte eta osasun zerbitzu publikoen jasagarritasun ekonomikoa bermatzea, zergen bidezko finantzaketari esker.
- Prestazioak eta zerbitzuak eskuratu ahal izateko sistemak ezartzea, errenta maila batetik aurrerako pertsonak laguntzarik gabe gero ez daitezkeen, eta guztientzako zerbitzu soziala izaten jarrai dezagun, ez pobreenentzako zerbitzuak bakarrik.
- Zeharkako eran biztanle sektore guztien onerako izango diren politika globalei lehentasuna ematea, bereziki prebentziokoei eta politika sektorialak gai oso espezifikoetarako bakarrik erabiltzea.
- Aurrekoari lotuta, era guztietako oztopo arkitektonikoak ezabatzea eta etxebizitza eta hirigune irisgarri, atsegin eta jasagarrien eraikuntza bultzatzea, pertsona guztiek aukera izan dezaten gizartearen barruan integratzeko.

- Adinekoen gaiak tratatzen dituzten departamentuen eta politiken arteko zeharkako koordinazioa hobetzea, bereziki gai hauei dagokienez: esparru sozio-sanitarioa, ohiko bizilekuan mantentzeko programak eta zahartze aktiboa bultzatzekoak. Zehazki eskatzen da, jarduera fisikoa, kulturala, prestakuntzakoa eta harremanetakoa lantzeko planak egitea adinekoentzako.



- Diskurtso publikoan ez kontrajartzea adinekoen eskubide sozialak eta beste biztanle talde batzuenak.
- Adin desberdinetako pertsonen eta kolektiboek parte hartzen duten kontseiluen arteko konexioa bultzatu eta indartzea, eta horien barnean emakumeen parte hartze handiagoa sustatzea.
- Adinekoen tratu ona eta babesa, prebentziozkoa bada hobe, sustatzea, generoari, jatorrizko kulturari eta bizi diren inguruneari dagozkion desberdintasunak kontuan hartuta.

- Gizon eta emakumezkoen ardura partekatua bultzatzea, batez ere pertsonak —mendekotasuna dutenak bereziki— zaintzeko lanetan, eta ahalegin guztia egitea emakumeek ardura handiagoa har ez dezaten beren gain.
- Adinekoen Kontsulta eta Parte hartzeko Kontseiluetako buru kolektibo horretako pertsonak izatea sustatzea.
- Alderdi politikoek egiten dituzten hautagai zerrendetan kontuan izan dezatela genero eta adin dibertsitatea, adineko pertsonak hautatuak izateko aukera duten lekuan jar ditzatela.
- Zahartzeari eta zahartzaroari buruzko politikak diseinatzen eta garatzen dituztenean, kontuan izan ditzatela desgaitasunen bat duten pertsonen premiak.
- Administrazio publikoetan mekanismo argi eta sinpleak prestatzea, adinekoei ezagutzera emateko nolako zerbitzuak eskaintzen zaizkien.



ADINEKOEN ELKARTEENTZAKO GOMENDIOAK

- Adinekoen mugimendu sendo eta indartsua lerrotzeko lan egitea, gaur egun dagoen gehiegizko atomizazioa gainditzea eta koordinazioa hobetzea.
- Mugimendu elkartu eta koordinatuago horretatik abiatuta, adinekoek gizartean eta erakundeetan presentzia handiagoa izan dezaten lan egitea.
- Paper hezitzailea eta kontzientziatzailea jokatzeko adinekoen kolektiboaren baitan, bizimodu aktiboa izateari utz ez diezaioten, eta gizarteari balioa eransteko jarraitzeko konpromisoari euts diezaioten.
- Zahartze aktiboa, parte hartzea eta boluntario gisa komunitatearen alde lan egitea bultzatzeko bideak artikulatzea.
- Elkarrekin egiten duten lana eta lortzen duten emaitza modu jarraituan publikoari ezagutzera ematea, helburu bikoitzarekin: adinekoak berak parte hartzera animatzea, eta gizarteari ikusaraztea laguntza emaileak direla, ez bakarrik laguntza hartzaileak.
- Parte hartze handiagoa lortzeko behar diren neurriak hartzea, eta emakumeek adinekoen elkarte mugimenduetan egiten duten lana bistaratzea.
- Memoria historikoaren arloan diharduten erakundeekin harremanetan jartzea, eta haiekin elkarlanean aritzea esperientzia eta ezagutza partekatzeko.
- Beste arlo batzuetako elkarrekin lankidetzan aritzea, belaunaldien arteko harremanak eta gizarte planteamendu komunak sustatzeko.

KOMUNIKABIDEENTZAKO GOMENDIOAK

- Adinekoen irudi normalizatua, aktiboa eta komunitatean integratua aurkeztea; adinekoen irudia ez erakustea beti mendekotasunari, defentsa gabeziari, marjinazioari edo karga sozialari lotuta.
- Emakume eta gizonezko adinekoek duten rol aktiboari, eta inguruko familiari eta gizarteari egiten dioten ekarpenari zabalkundea ematea.
- Adinekoei, gizon nahiz emakumeei, presentzia handiagoa eskaintzea programazioen edukian eta albisteetan, eta beraiek izan daitezela zuzenean azalpenak ematen dituztenak, profesionaletara jo gabe.
- Hedatzen den informazioaren edukian saihestea adinekoen eta biztanleriaren beste talde batzuen gizarte eskubideak aurrez aurre jartzea.
- Estereotipoen hedapena saihestea, besteak beste, senitartekoek ez dituztela adineko pertsonak behar bezala zaintzen dioena.
- Bi sexuek zaintza lanak partekatu behar dituztela aldarrikatzea.
- Objektibotasun osoz tratatzea adinekoen tratu txarrei, zaurgarritasunari eta arretarik ezari buruzko albisteak, dramatismo handiagorik erantsi gabe edo ikuslearen edo irakurlearen jakin-min morbosoa pizteko biderik eman gabe.

GIZARTE ZERBITZUENTZAKO GOMENDIOAK

- Udalen eskumenekoak diren oinarrizko gizarte zerbitzuak garatzea, sare komunitarioa dinamizatzeko laneko lerro espezifiko bat irekitzea, adinekoak eta adinekoen elkarteak barne hartuko dituen.
- Programak garatzea eta koordinatzea adinekoek beren etxean modu egokian bizi izaten jarraitu ahal izan dezaten, zaintzaileei laguntza emateko eta berehala detektatu ahal izateko adinekoek noiz behar duten gainbegiratzea eta arreta ematea.
- Aukera ematea eta arduratzea, etxean edo zerbitzu espezializatu batean artatutako pertsona bakoitzak zaintza plan indibidual bat izan dezan, berak parte hartuta landutakoa, eta erregulartasunez ezagutarazia, ebaluatua eta eguneratua izango dena.



- Zaintzak jarraipena izango duela segurtatzea, babesik gabe ez geratzeko ospitalean alta emandakoan edo bere etxean arreta ematen jarraitu ezin denean. Arreta berezia eskatzen da burua galduta duten eta gaixotasun mentalen bat duten pertsonentzat.
- Atsedetik gabe lan egitea zuzeneko osasun arretako eta gizarte zerbitzuetako profesionalen prestakuntza, parte hartzea, estresaren prebentzioa, zaintza lanen praktika egokiak eta laneko baldintzak hobetzeko.
- Zerbitzuak erabiltzaileen premien arabera ezartzea eta antolatzea eta erabiltzaile horien bizi erritmoei egokitzen zaizkiela, tratu ona ematen zaiela eta familiakoek eta erabiltzaileek parte hartzeko bideak badituztela kontrolatzea.
- Adinekoen kontrako tratu txarrak eta gehiegikeriak eragozteko ekintzak eta jarduerak indartzea, etxeetan eta zentroetan horrelako egoerak garaiz detektatzeko bidea jarritz, eta erantzuna emateko protokolo bizkorak ezarriz.
- Artatutako pertsonen artean, etorkizunean ahalmena galtzeko arriskua kontuan izanda, erabakiak aurrez hartzea bultzatzea, aldez aurreko borondate adierazpenaren eta auto-tutoretzaren bidez.
- Adineko pertsonen eguneroko bizitzaren arlo guztietan erabakiak modu autonomoan hartzen laguntzea, hori lortzeko behar duten laguntza emanez.

